# ERDITZEAGATIK JAIOTZAKO ETA ADINGABEKOA ZAINTZEKO
## PRESTAZIOA

### ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1. **DATU PERTSONALAK.-** 1.1 ESKATZAILEA eta 1.2 BESTE GURASOAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK ataletako identifikazio pertsonaleko eta bizileku iraunkorreko datuekin beteko da (1.2 atala bi seme-alaba edo gehiago izanez gero bakarrik bete behar da nahitaez, edo eskatzaileari prestazio honen ondorioetarako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua aplikatzen bazaio).

   Eskaera ez bada norberaren izenean egiten, ordezkari bidez baizik, LEGEZKO ORDEZKARIAren 1.3 atala edo BORONDATEZKO ORDEZKARIAren 1.4 atala beteko da, ordezkaritza mota eta ordezkatzen duena adierazita.

2. **ESKABIDEAREN ZIOA.-** Atal honetan eskatzen diren datak eta datuak adieraziko dira.

3. **ARAUBIDE APLIKAGARRIA.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua aplikagarria bada,** halaxe adierazi beharko du.

4. **PRESTAZIOA JASOTZEKO MODALITATEA.-** Atal honetan betetako datuen araberakoa izango da eskatutako prestazioaren iraupena; beraz, ahalik eta informazio gehien eman ezazu.

   A**TSEDENALDIA HARTZEA:** Jaiotzako eta adingabekoa zaintzeko prestazioa jasotzeko aldia adieraz ezazu. Gogoan hartu eskatutako epealdia onartutakoan, ezingo dela aldatu.

5. **SOROSPEN BEREZIA ERDITZE ANIZKOITZAREN KASUAN.-** Adieraz ezazu sorospen honen onuradun izango zaren.

6. **BESTE DATU BATZUK.-** DATU FISKALETAN, zergetarako egoitza zein probintziatan duzun jarri behar duzu (non duzun urtean 180 egun baino gehiagotan).

   Lurralde erkidean eta euskal foru-lurraldean, jaiotzako eta adingabekoa zaintzeko prestazioak ez du PFEZ atxikipenik.

   Nafar foru-lurraldean, ordea, jaiotzako eta adingabekoa zaintzeko prestazio honetarako taula orokorra aplikatzea, pentsiodunen taula aplikatzea nahiz borondatezko atxikipen tasa aplikatzea hauta dezakezu.

   HIZKUNTZA KOOFIZIALA hautatzeak soilik aitortuta duten autonomia-erkidegoetan izango ditu ondorioak.

7. **BANKUKO DATUAK.-** Kontu handiz bete bankuko kontuaren laukitxoak. Kontuaren titularra eskatzailea izango da edozein kasutan, laguntza judizialeko neurriak behar baditu ere, legezko ordezkaria ebazpen judizial bidez kobratzeko egiaztatuta dagoen kasuetan izan ezik.

   Datu hori okerra bada edo ez badago, ezingo da onartu litekeen prestazioa ordaindu.

   IBAN ere adierazi behar duzu, hau da, banku-kontuaren nazioarteko zenbakiaren baliokidea. Zure bankuak edo aurrezki-kutxak bidaltzen dizkizun ordainagiri eta jakinarazpenetan aurki dezakezu. Horien ezean, bete itzazu “bezero-kontuaren kodea” ari (BKK) dagozkion laukitxoak.

8. **IZAPIDE ELEKTRONIKORAKO BAIMENA.-** Gogoratu aukera hau markatzea baimena ematen baduzu funtzionario publiko batek edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren tratamendu automatizatu baten bidez izapide hau elektronikoki egiteko.

20240603

MP-1 bis eus V.17

Ezabatu

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

GIZARTE SEGURANTZAREN ETA PENTSIOEN ESTATUKO IDAZKARITZA — SECRETARÍA DE ESTADO DE LA SEGURIDAD SOCIAL Y PENSIONES

GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA — INSTITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL

GSINeko erregistroa

# ERDITZEAGATIK JAIOTZAKO ETA ADINGABEKOA ZAINTZEKO

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoaren bidez (***https://sede.seg-social.gob.es***) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota Cl@ve iraunkorrarekin. Identifikazio elektronikorako sistemarik ez baduzu, izapidea ***https://run.gob.es/tramites*** helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo ***https://run.gob.es/trdcita*** helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

## 1. DATU PERTSONALAK

**1.1 ESKATZAILEA** (hautatu aukera bat): **AMA BIOLOGIKOA** ☐ **BESTE GURASOA** ☐

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena | Bigarren abizena | Izena | | | | |
| Jaiotze-data | Sexua ☐ Gizona ☐ Emakumea | NAN-AIZ-Pasaportea | Gizarte Segurantzako zk. | Nazionalitatea | | |
| Helbidea (kalea, plaza…) | Zenbakia | Blokea | Eskailera | Solairua | Atea | Telefono mugikorra |
| Posta-kodea | Herria | Probintzia | Posta-elektronikoa | | | |

**1.2 ESKATZAILEA EZ DEN BESTE GURASOAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| | | |
|---|---|---|
| Lehenengo abizena | Bigarren abizena | Izena |
| NAN-AIZ-Pasaportea | Gizarte Segurantzako zk. | |

**1.3 LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK** (desgaitasuna dutenei edo adingabeei laguntza-neurriak eskaintzen dizkien pertsona)

☐ Guraso-ahalaren titularra ☐ Tutorea ☐ Erakundeko tutorea
☐ Egitatezko zaintzailea ☐ Kuradorea ☐ Kuradore instituzionala
☐ Defendatzaile judiziala

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena | Bigarren abizena | Izena | NAN-AIZ-Pasaportea | | | |
| Helbidea (kalea, plaza…) | Zenbakia | Blokea | Eskailera | Solairua | Atea | Telefono mugikorra |
| Posta-kodea | Herria | Probintzia | Posta-elektronikoa | | | |

**1.4 BORONDATEZKO ORDEZKARIA**

☐ Ordezkaritza-ereduaren bidez egiaztatutako ordezkaria
(“senide edo laguna” edo “profesionala den elkargokidea”)

☐ Ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatutako ahalduna

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena | Bigarren abizena | Izena | NAN-AIZ-Pasaportea | | | |
| Helbidea (kalea, plaza…) | Zenbakia | Blokea | Eskailera | Solairua | Atea | Telefono mugikorra |
| Posta-kodea | Herria | Probintzia | Posta-elektronikoa | | | |

MP-1 bis eus V.17 20240603

Gurasoaren abizenak eta izena: NAN-AIZ-Pasaportea: ②

## 2. ESKAERAREN ARRAZOIA

**2.1** **JAOIOTZA** ☐ **ORDEZKAPENEZKO HAURDUNALDIA** ☐

Erditze-data ........................ Jaiotako haurren kopurua ............ Zebat seme-alabek duten desgaitasuna ..................

Jaiotako seme-alabaren desgaitasunaren kasuan, desgaitasunaren agiririk al du? BAI ☐ EZ ☐ Maila aitortua ............ %

Ziurtagiririk ez badu, adieraz ezazu zein datatan eskatu duen ........................

## 3. ARAUBIDE APLIKAGARRIA

**3.1** **ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUA (EBEP) APLIKAGARRIA AL DA?(1)** BAI ☐ EZ ☐

(1) Administrazio Publikoetako zerbitzupeko langileei, helburu hauetarako, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua aplikatuko zaie (7 artikulua).

## 4. HARTZEKO MODALITATEA

**4.1** **AMA BIOLOGIKOA:** Atsedenaldia erditu aurretik hartu nahi duzu? (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari ez zaio aplikatzen)

Atsedenaren hasiera-data (2) ..................................

Erditzearen gutxi gorabeherako data ..................................

(2) Langileen Estatutuaren pean dauden langile emakumeentzat (LEaren 48.4 Art.), prestazioa aurreratu ahalko da, erditzeko aurreikusitako dataren aurretik, astetan zenbatuta, gehienez lau astez.

**4.2** **ATSEDENALDIA HARTZEA**

Hasiera data (3) .................................. Amaiera data ..................................

Prestazioa epealdi batean baino gehiago jaso nahi al duzu? BAI ☐ EZ ☐

***Baiezkoan, bete ezazu "Erditzeagatik jaiotzako eta adingabekoa zaintzeko prestazioa epealdi anitzetan jaso" inprimakia (www.seg-social.es webgunean eskuragarri dago).***

(3) Erditze ondorengo sei astetako lanaldi osoak disfrutatu behar dira, derrigorrez eta etengabe.

## 5. SOROSPEN BEREZIA ERDITZE ANIZKOITZAREN KASUAN

**5.1** Erditze anizkoitzagatik sorospen berezia jaso behar al duzu? (4) BAI ☐ EZ ☐

(4) **Bi gurasoek lan egiten badute,** sorospen hau zeinek jasoko duen adostu beharko dute; horretarako kontuan hartu beharko dute guraso onuradunak atsedenaldia etengabeko 6 astez hartu beharko duela, lanaldi osoan, erditze ostean. Akordioa gauzatzeko, "Gurasoen akordioa, erditze/harrera/adoptatzeko helburuarekin zaintza/ babes anitzagatik sorospen berezia jasotzeko" inprimakia bete beharko da (www.seg-social.es webgunean eskuragarri dago).

## 6. BESTE DATU BATZUK

**6.1** **DATU FISKALAK**

Egoitza fiskala: Lurraldea ..................................................................................

Zure egoitza fiskala FORU-LURRALDE batean badago, PFEZren atxikipenaren ondoreetarako hau aplikatzea nahi duzu:

Taula orokorra ☐ Zenbat seme-alaba ................. Pentsiodunen taula ☐ Borondatezko tasa ☐ ................%

**6.2** **HIZKUNTZA KOOFIZIALA** aukeratu, komunikazioa/ebazpena hizkuntza horretan jasotzeko ..................................................................

20240603
MP-1 bis eus V.17

| Gurasoaren abizenak eta izena: | NAN-AIZ-Pasaportea: |
|---|---|
| | |



**7. BANKUKO DATUAK** (Kontuaren titularra eskatzailea izan behar du, laguntza judizialerako neurriak behar baditu ere, legezko ordezkaria ebazpen judizialaren bidez kobratzeko akreditatuta dagoenean izan ezik). Datu horren akatsak edo gabeziak prestazioaren ordainketa eragotziko luke.

Honen kontuan:

☐ Eskatzailea

☐ Guraso-ahalaren titularra edo tutorea

☐ Ebazpen judizial bidez kobratzeko egiaztatutako legezko ordezkaria

| KONTUAN/LIBRETAN | IBAN kodea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | HERRIALDEA KODEA | CCC | | | |
| | | ENTITATEA | BULEGOA/ SUKURTSALA | KONT. DIGITUA | KONTU-ZENBAKIA |
| | | | | | |

## 8. IZAPIDE ELEKTRONIKORAKO BAIMENA

☐ Baimena **EMATEN DUT**, honetarako bakarrik, gaiturik den funtzionario publiko batek edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren tratamendu automatizatu baten bidez identifikatu eta autentikatu nazaten, izapide hau elektronikoki egiteko.

**AITORTZEN DUT,** inprimaki honetan ematen ditudan datuak egiazkoak direla.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen dizu edozein Administraziok dituen datu edo dokumentuak medio elektronikoen bitartez kontsultatzeko eta eskuratzeko, legeak datu horien eskuraketa babesten ez duenean eta horiek beharrezkoak direnean zure eskaera bideratzeko eta, dagokionean, onartutako prestazioa kudeatzeko:

☐ **BAI, baimena ematen dut**

☐ **EZ, ez dut baimenik ematen**

OHAR GARRANTZITSUA: **Baimena ematen ez baduzu, zure eskaera bideratzeko eta, dagokionean, onartutako prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren dokumentuak emateko 10 egun balioduneko epea izango duzu.**

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen du eskaera honetan emandako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta harremanetarako datuak erabiltzeko, Gizarte Segurantzaren arloko jakinarazpenak bidaltzeko.

☐ **BAI, baimena ematen dut**

☐ **EZ, ez dut baimenik ematen**

| DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA | |
|---|---|
| **ARDURADUNA** | Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala (GSIN) |
| **HELBURUA** | GSINren eskumena den Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioak kudeatzea |
| **LEGEZTATZEA** | Botere publikoak erabiltzea |
| **HARTZAILEAK** | Legez ezarritako edo baimenduz utzitako lagapenak eta transferentziak bakarrik egingo dira. |
| **ESKUBIDEAK** | Datuak ikustea, zuzentzea eta kentzea; baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen den moduan. |
| **JATORRIA** | Beste administrazio eta erakunde batzuen datuak biltzen ditugu, legez ezarritako baldintzen arabera. |
| **INFORMAZIO OSAGARRIA** | Informazio osagarri eta zehatza kontsulta dezakezu inprimaki honekin batera erantsitako informazio-orrian, "DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA" atalean |

.................................................... , 20 ....... (e)ko ........................... aren ....... (a)

Sinadura

**Eskaera hau Internet bidez aurkeztuko baduzu, ez duzu inprimaki hau sinatu behar**

.................................................... GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALAREN PROBINTZIA ZUZENDARITZA

MP-1 bis eus V.17 20240603

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

GIZARTE SEGURANTZAREN ETA PENTSIOEN ESTATUKO IDAZKARITZA
SECRETARÍA DE ESTADO DE LA SEGURIDAD SOCIAL Y PENSIONES

GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA
INSTITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL

GSINeko erregistroa

## ADMINISTRAZIOAK BETETZEKO

Espedientearen identifikazio-gakoa:

Harremanetarako funtzionarioa:

Gurasoaren abizenak eta izena: NAN-AIZ-Pasaportea: ④

# ERDITZEAGATIK JAIOTZAKO ETA EADINGABEKOA ZAINTZEKO PRESTAZIOAREN ESKARIA

## GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALAK ESKAERA JASOTZEN DEN EGUNEAN ESKATZEN DITUEN DOKUMENTUAK

1 ☐ NAN, pasaportea edo baliokidea, AIZ, AIT norena:
- ☐ Eskatzailea.
- ☐ Legezko ordezkaria.
- ☐ Borondatezko ordezkaria.

2 ☐ Ordezkaritza izanez gero:
- ☐ Legezko ordezkaria bada, legezko ordezkaritza egiaztatzen duen ebazpena edo baimen judiziala.
- ☐ Borondatezko ordezkaria bada, ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

3 ☐ Legezko ordezkaria eskatzailearen guraso-ahalaren titularra bada, familia-liburua.

4 ☐ Enpresaren ziurtagiria.

5 ☐ Autonomoek: lan-jardueraren egoeraren adierazpena.

6 ☐ Osasun Zerbitzu Publikoak emandako “Amatasun-txostena”.

7 ☐ Familia-liburua edo inskripzioaren ziurtagiria, datu horiek Erregistro Zibilean automatizatuta ez daudenean.

8 ☐ Erregistro Zibilaren, “aitorpena haurdunaldiko sei hilabeteen ondoren bizirik gabe jaio dela egiaztatzen duena”.

9 ☐ Umearen desgaitasunari buruzko txosten medikoa.

10 ☐ Beste agiri batzuk.

.............................................................................................................................................

Jaso dut Sinadura

MP-1 bis eus V.17 20240603

# ERDITZEAGATIK JAIOTZAKO ETA ADINGABEKOA ZAINTZEKO
## PRESTAZIOA

### PRESTAZIOA BIDERATZEKO BEHARREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK (*)

1. **KASU GUZTIETAN**
   – Nortasuna egiaztatzea: eskatzailearena, eskatzailea ez den beste guraso bat (1.2 atala betetzea nahitaezkoa denean bakarrik) eta, halakorik balego, legezko ordezkaria edo borondatezko ordezkaria, indarrean dagoen dokumentazio honen bidez:
   - Espainiarrek: Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
   - Atzerritar gizonezkoak: Pasaportea edo, hala badagokio, bere herrialdean indarrean dagoen nortasun agiria eta AIZ (Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) AEAT-ak eskatzen duena ordainketaren edo Atzerritarraren Identifikazio Txartelaren (AIT) xedetarako.

   – Legezko edo borondatezko ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa, hala badagokio.

   – Legezko ordezkaria eskatzailearen guraso-ahalaren titularra bada, familia-liburua.

   – Besteren konturako langileek: enpresaren egiaztagiria, jaiotzako eta adingabea zaintzeko prestazioko lan-etenaldia zein egunetan hasten den erakusten duena, baldin eta enpresak berak ez badu bidali aipatutako egiaztagiria RED sistema erabiliz.

2. **ESKAERAREN ARRAZOIA**

   ***2.1 Jaiotzagatik bada:***

   – **Amatasun-txostena**, dena delako osasun-zerbitzu publikoak emana. Kasu hauetan aurkeztu beharko da:
   - Erditzeko eguna baino lehenago hasi du atsedenaldia langileak.
   - Umea hil egin da, baina amaren sabelean gutxienez ehun eta laurogei egun egon ondoren..

   – **Familia-liburua** edo, halakorik ezean, haurra/haurrak Erregistro Zibilean inskribatu izanaren ziurtagiria, datuok automatizaturik ez badaude. Atsedena seme-alaba jaio aurretik hasi bada, agiri horiek seme-alaba erregistroan inskribatu eta gero aurkeztu behar dira.

   – Erregistro Zibilaren, **“aitorpena haurdunaldiko sei hilabeteen ondoren bizirik gabe jaio dela egiaztatzen duena”**.

   – Amak diharduen lanbidean ez baldin bada zertan Gizarte Segurantzan alta eman eta mutualitate edo elkargo profesional batean baldin badago, agiri baten bidez egiaztatu beharko da ez duela, erditzeagatik prestaziorik edo kalte-ordainik jaso, edozein izanik ere prestazioaren iraupena, zenbatekoa, osaera edo araubidea.

   ***2.2 Ordezkapenezko haurdunaldia:***

   – **Inskripzioa Erregistro Zibil espainiarrean jaiotakoaren filiazioarena**

   **edo**

   – **Epai judizial irmoa** filiazioari buruz.

3. **HARTZEKO MODALITATEA**

   ***3.1 Lanaldi partzialeko atsedenaldia (kontuan izan modalitate hau borondatezko atsedenaldietan bakarrik onartzen dela):***

   **Atsedenaldia hartuz gero, lanaldi partzialeko erregimena:**

   – **Besteren konturako langileentzat**, enpresaren ziurtagiria (*www.seg-social.es* webgunean aurkituko duzu).

   – **Norbere konturako langileentzat,** interesdunaren ziurtagiria, non jardueraren partzialeko lanerako baldintzak biltzen diren (*www.seg-social.es* webgunean aurkituko duzu).

4. **BESTELAKO AGIRIAK**

   – **Jaiotako seme-alaben desgaitasunaren kasuan:** Desgaitasun-ziurtagiria, % 33ko edo hortik gorako gradua aitortzen duena (kontribuziokoa ez den amatasuna handitzekoa izan ezik, hori % 65ekoa edo hortik gorakoa izango baita), Imsersok edo autonomia-erkidegoko organo eskudunak emana.

   Jaioberriak izanik, desgaitasungradua zehaztu gabe dagoenean, nahikoa izango da Osasun Zerbitzu Publikoaren txostena, edo ospitale publiko edo pribatu baten txosten medikoa, azken kasu horretan Osasun Zerbitzu Publikoaren oniritziarekin, zeinetan jasoko baita umeak zein desgaitasun daukan edo izan dezakeen.

   – **Erditzearen ondoren jaioberriaren ospitaleratzea gertatzen bada**, eta horrek atsedenaldia luzatzea badakar, ospitaleak emandako agiria, ospitaleratze hori egiaztatzen duena. Agiri horretan adieraziko da ospitaleratzea noiz hasi eta amaitu den.

   Langilea aldibaterako ezintasunerako prestazioa jasotzen ari bada Gizarte Segurantzari laguntzen dion mutualitate batek zuzenean ordainduta, erakunde horren ziurtagiria aurkeztu beharko du, bertan adierazita oinarri arautzailearen kalkulua eta sorospenaren amaiera-data.

---

**(*) Agiriak atzerriko erakundeek egin badituzte, Espainian baliozkoak izateko legeztatzeko baldintzak bete beharko dituzte**

MP-1 bis eus V.17 20240603

# ERDITZEAGATIK JAIOTZAKO ETA ADINGABEKOA ZAINTZEKO PRESTAZIOA

## GIZARTE SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONALAK JAKINARAZTEN DIZU:

Martxoaren 7ko 286/2003 Errege-Dekretuaren artikulu bakarrarekin bat etorriz (apirilaren 8ko BOE), hasitako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez, 30 egunekoa da, eskaera Probintzia Zuzendaritzan erregistratzen den egunetik edo, hala badagokio, eskatutako agiriak entregatzen direnetik zenbatzen hasita.

Epe hori igarota, espedientearen ebazpenaren berri dakarren jakinarazpenik jaso ezean, administrazioaren isiltasunaren bidez eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko da, eta, orduan, ebazpena eman dezaten eskatu ahal izango da; eskaera horrek aurretiazko erreklamazioaren balio bera izango du, betiere lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera (urriaren 11ko BOE).

Gizarte Segurantzaren Administrazioaren esparruan jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak arautzen dituen irailaren 24ko ISM/903/2020 Aginduaren arabera, jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioaren komunikazio eta jakinarazpen guztiak elektronikoki egingo dira, eta Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoan eskuragarri egongo da prestazioaren ebazpena, ziurtagiri digitalaz edo Cl@ve-z baliatuta.

Cl@ve iraunkorra lortu nahi baduzu, behar duzun informazio guztia aurkituko duzu helbide honetan: *https://clave.gob.es*.

Eskari honekin batera beharrezkoak diren dokumentuak aurkezten ez badituzu, hamar eguneko epean aurkeztu beharko dituzu, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoan aurkez ditzakezu, bertaratzeko beharrik gabe, ziurtagiri digitala edo Cl@ve iraunkorra erabilita (*http://sede.seg-social.gob.es*) nahiz postaz, edo aurrez-aurre Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Gunean, aurretik ordua eskatuta.

Epe hori ez betetzeak honako ondorio hauek izango ditu:

- Titularraren eta, hala badagokio, legezko edo borondatezko ordezkariaren identifikazio-agiriak, eta ordezkaritza egiaztatzea: eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak aurretik ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (2015-10-02ko BOE) 66. eta 68. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz.
- Gainerako agiriak: espedientea izapidetzerakoan ez dira kontuan hartuko bertan jasotako inguruabarrak, frogatu gabe egoteagatik, aipaturiko 39/2015 Legearen 77. artikuluarekin bat etorriz edo, hala badagokio, eskatutako prestazioa jasotzeko eskubidea izateko edo hura ondo kalkulatzeko betekizunak ez dituzula behar beste egiaztatu ulertuko da, amatasun, aitatasun, haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskuetarako Gizarte Segurantzako sistemako prestazio ekonomikoak arautzen dituen martxoaren 6ko 295/2009 Errege Dekretuan xedaturikoarekin bat etorriz. (2009-3-21eko BOE).

Aldiz, emandako epean aurkeztuz gero, haien prestazioa ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea agiri horiek jaso diren egunetik hasita zenbatuko da

**GOGOAN IZAN:**

Eskaera honetako datuetan aldaketarik gertatzen bada, bai lan-egoerari dagokionez (lana uztea, lanaldi partzialeko lan-jarduera hastea, etab.), bai helbideari dagokionez, prestazioa indarrean dagoen bitartean, Erakunde Kudeatzaile honi jakinarazi beharko diozu, aurretik adierazitako bideetako edozein erabiliz.

20240603
MP-1 bis eus V.17

## DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

| | |
|---|---|
| **TRATAMENDUAREN ARDURADUNA** | ***Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?***<br>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala<br>Padre Damián, 4<br>PK 28036 Madril, ESPAINIA<br>*https://sede.seg-social.gob.es* |
| **DATUEN BABESAREN ORDEZKARIA** | ***Nola jar gaitezke harremanetan Datuen Babesaren Ordezkariarekin?***<br>Gizarte Segurantzako Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritza<br>Infanta Mercedes, 31- 3ª Solairua<br>PK 28020 Madril, ESPAINIA<br>*https://sede.seg-social.gob.es* |
| **TRATAMENDUAREN HELBURUA** | ***Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?***<br>Zure datuak eskaera hau ebazteko, eta hala badagokio, aitortutako prestazioa kudeatzeko helburu nagusiarekin tratatuko dira.<br>Zure harremanetarako datuak tratatzearen helburua jakinarazpenak egitea eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioa bidaltzea izango da.<br>Emandako datu pertsonalak zure prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, edo bere onuradunenak; baita beste helburu batzuetarako ere: artxibatzea, estatistika publikorako. |
| **TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA** | ***Zer da zure datuen tratamendurako legitimazioa?***<br>Lege-arau batek baimendutako botere publikoen erabileran oinarrituko da datuen tratamendua (66, 71, 72 77 artikuluak eta elkarkideak 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, aurrerantzean, TRLGSS).<br>Jakinarazpenei eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioen bidalketari dagokionez, tratamendua baimenaren bidez legeztatuko da. Baimenik ez baduzu ematen, ezin izango duzu jaso mota honetako bidalketak, hala ere, zure eskaeren egoerari buruzko informazioa eman ahalko dizugu kanal horien bidez. Horrez gain, jakinarazten dizugu ez duzula zure helbide elektronikorik eta telefono mugikorraren zenbakirik eman behar, eta ez badiguzu ematen, zure eskaera izapidetzen jarraitu ahalko duzula. |
| **LAGAPENEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK** | ***Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?***<br>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bere eginkizunetan lortutako datu pertsonalak erreserbatuak dira, eta legez agindutako helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, horren helburua GSLOTBren 77. artikuluan berariaz ezarritako kasuren bat bada, edo beste edozein lege-arautan adierazitako kasuren bat bada.<br>Nazioarteko araudian oinarritutako eskaera bat bada, zure datuak zure eskaera izapidetzeko eskumena duten atzerriko erakundeei laga ahalko zaizkie. |
| **INTERESDUNEN ESKUBIDEAK** | ***Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean?***<br>Emandako datu pertsonalei dagokienez, edozein unetan eta datuen babesari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan erabil dezakezu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea, edo tratatzeko baimena ken dezakezu hala eskatu den kasuetan. Hori guztia, idazki bat aurkeztuz Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentro batean (CAISS), edo postaz, edo Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren bidez, Datuen Babeseko Ordezkariaren aurrean. Datu horiek taula honen bigarren atalean daude.<br>Jakinarazten dizugu zure eskaerari modu egokian ez diogula erantzun uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean. |
| **JATORRIA** | ***Nola lortzen ditugu zure datu pertsonalak?***<br>Zure eskaeran emandako datuez gain, beste administrazio eta erakunde batzuetatik beste datu pertsonal batzuk biltzen ditugu, arautegia betez, administrazio-jarduera arintzeko eta errazteko. Datuetarako sarbide horiek lege-maila duten arauek babesten dituzte. |

MP-1 bis eus V.17 20240603